

HIRIKO GARRAIO PUBLIKO ERREGULARRAREN ZERBITZUARI DAGOKION IZAERA EZ-TRIBUTARIOKO ONDARE PRESTAZIO PUBLIKOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA BERRIAREN AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA

Finantza Zuzendaritzak hiriko garraio publiko erregularraren zerbitzua arautzen duen ordenantza berria sustatu nahi du, indarrean den araudira egokitzeko udal zerbitzu eta jarduerari dagozkien tasak arautzen dituen zerga ordenantza, soilik hiri garraio publiko erregularrari dagokionez

Konpondu nahi diren arazoak:

2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen 2019ko otsailaren 11ko 3/2019 Foru Araua egokitzea hiri garraio publiko erregularraren zerbitzua emateari buruzko udal araudia. Izan ere, foru arau horrek ondare prestazio publikoen kategoria sartu du Gipuzkoako ordenamenduan, foru arau hauetan hainbat aldaketa eginda: 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunena; 2/1990 Foru Araua, urtarrilaren 11koa, Tasa eta Prezio Publikoena; eta 2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergena.

Prestazio horiek tributu izaera edo tributuz kanpokoa izan dezakete. Tributu izaera ez duten ondare prestazio publikotzat hartuko dira izaera hertsatzailea duten zerbitzu publikoko prestazioak, zuzenean pertsonifikazio pribatuaren bitartez edo zeharkako kudeaketaren bidez ematen direnak. Zehazki, halakotzat hartuko dira emakida araubidearekin bat obrak ustiatzestatik edo zerbitzuak emateagatik eskatzen direnak, ustiaketa edo zerbitzu emate hori honakoen bitartez egiten denean: ekonomia mistoko sozietateen, enpresa entitate publikoen, kapital guztiz publikoa duten sozietateen eta zuzenbide pribatuko gainerako formulen bitartez.

Onartzeko beharra eta aukera

Donostiako Tranbia Konpainia SAU udal sozietateak ematen du hiri zerbitzu publiko erregularraren zerbitzua. Sozietate horren partaide bakarra Donostiako Udala da.

Orain arte, udal zerbitzu eta jarduerari dagozkien tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren bidez arautu da zerbitzu hori; beraz, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen 2019ko otsailaren 11ko 3/2019 Foru Araua indarrean sartzearekin batera, haren arabera eguneratu behar da ordenantza, eta zerga izaera ez duen beste bat sortu, zerbitzuaren izaera ez-tributarioko ondare prestazio publikoa arautzeko.

Araudiaren helburuak

Hiriko garraio publiko erregularraren zerbitzuari dagokion izaera ez-tributarioko ondare prestazio publikoari buruzko udal ordenantza arautzea.

Araudi bidezko eta araudiz besteko irtenbideak

Ordenantza berriaren bidez arautuko diren zerbitzuak izaera hertsatzailea duten zerbitzu publikoak dira, eta zuzenean ematen dira, pertsonifikazio pribatuaren bidez; horregatik, araudi berria kontuan hartuta, irtenbide egokiena zerga ordenantza berria onartzea da.

Legez ezarritako prozeduraren arabera egin behar da ordenantza hori.